PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Burutaingo Hobia

Burutaingo Hobia

Anuen dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Anue non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin zuten.
Ia inork ez zuen muga gurutzatzea lortu.
Frankistek preso hauetako asko
ihes egiten zutenean hil zituzten.

Frankistek Burutainen
gotorlekutik ihes egiten saiatu ziren
6 presoko talde bat atxilotu zuten.

Talde hau iparraldera joaten zen.
Frankistek presoak atxilotu zituztenean
Burutaingo eskolara eraman zituzten
Olagueko Guardia Zibilak giltzapetzeko.

Hurrengo egunean
herri guztia mezara joan zen
eta gero 6 preso hauek
Arleta zubira eraman zituzten.

Etsaingo erretoreak lagundu zituen
eta Jainkoaren aurrean aitortzea eskaini zien.
Gero frankistek
pertsona hauek metrailadoreekin hil zituzten.
Metrailadorea balak jaurtitzen dituen arma mota bat da.

Bideko Mitxingorria Koordinakundeak
garai horretan Burutanen bizi zen
Martín Laguardiaren testigantza jaso zuen.
Martínek txikia zenean
frankistek 6 pertsona hauek
nola hiltzen zituen ikusi zuen.

Martínek kontatu zuenari esker
lurperatu zituzten lekua
aurkitu ahal izan zuten.
Burutaingo bizilagunek
haien gorpuak hobi batean lurperatu zituzten.

2017ko apirilean
Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Programaren barruan
desobiratze bat egin zuten hobi honetan.
6 pertsona hauen gorpuzkiak aurkitu zituzten

eta jakin izan zuten
hil zituztenean 25 urte baino gutxiago zituztela.
Oraindik ez dakite nortzuk ziren pertsona horiek.

Lehenengo aldiz
Memoria Duten Eskolak programaren barruan
DBH Iturrama eta DBH Alaitz ikastetxeetako ikasleek
hobi honen desobiratzea nola egiten zen
ikusi ahal izan zuten.

Hemen Burutaingo hobiaren desobiratzearen
argazkia ikus dezakezu:

